**2. artikulua.**- 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatzen da abenduaren 23ko 31/1998 Foru Arauaren 3. artikulua, telekomunikazio operadoreen toki zergen ordainketari buruzkoa, eta jarraian bezala idatzita geratzen da:

"3. artikulua.- Gainerako toki-zerga eta prezio publikoen ordainketa

Aurreko 1. artikuluan aipatu diren telekomunikazio operadoreak, gainerako toki-zerga eta prezio publikoen pean egongo dira, baina horren ordainarazpenagatik dagozkiekeen zerga-zorren ordez urteroko konpentsazio bat ordainduko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik salbuesten da uztailaren 23ko 573 Araugintzako Foru Dekretuaren I. eranskinean jasotzen diren Ekonomia Jardueren gaineko Zergako tarifetako 761.2 (telefonia mugikorreko zerbitzua) epigrafeko zerga-ordainketa. Kasu honetan, 43/1989 Foru Arauan, uztailaren 19koan, Ekonomia Jardueren gaineko Zergarenean, aurreikusitakoaren arabera ordainduko da zerga."

AMAIERAKO XEDAPENAK

**Lehenengoa.**- Arabako Foru Aldundiari aginpidea ematen zaio Zerga-premiazko Araugintzako Foru Dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.**- Zerga-premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, baliozkotu edo baliogabetu dezaten, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko abenduaren 27a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**Artículo 2.**- Con efectos de 1 de enero de 2003, se modifica el artículo 3 de la Norma Foral 31/1998, de 23 de diciembre -sobre la tributación local de los operadores de telecomunicaciones- que quedará redactado de la siguiente forma:

"Artículo 3.- Tributación por los restantes tributos y precios públicos de carácter local

Los operadores de telecomunicaciones a los que se refiere el artículo 1 anterior estarán sujetos a los restantes tributos y precios públicos de carácter local, si bien, las deudas tributarias que por su exacción pudieran corresponderles se sustituirán por una compensación de periodicidad anual.

Se exceptúan de lo dispuesto en el párrafo anterior la tributación por el epígrafe 761.2 (Servicio de telefonía móvil), correspondiente a las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas contenidas en el Anexo I del Decreto Foral Normativo 573/1991, de 23 de julio. En este caso se tributará con arreglo a lo previsto en la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Actividades Económicas."

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**- Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral Normativo de Urgencia Fiscal.

**Segunda**.- Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de diciembre de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

***Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak***

**8.077**

**61/2002 FORU DEKRETUA, abenduaren 10eko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretuaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren Testu Bateratua) 94. artikulua aldatzen da, eta banku erakundeek etxebizitza kontuen informazio aitorpena aurkezteko betebeharra dutela adierazten da.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 77.2. artikuluaren arabera, zergaren kuota osoan etxebizitzako inbertsioarengatik kenkaria egiteko, honakoa izango da ohiko etxebizitzan inbertitzea: kreditu entitateetan erregelamendu bidez xedatzen diren formalizazio eta erabilera betebeharrak betetzen dituzten kontuetan gordailatzen diren kopuruak, betiere, kenkaria izateko eskubidea sortu duten kopuru horiek, kontua ireki zen egunetik bost urteko epearen barruan, ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzen badira.

Abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretuak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren testu bategina onesten du) etxebizitza kontuen arauzko garapena arautzen du.

Etxebizitza kontuen araudi orokor horri xedapen bat erantsi nahi zaio, kreditu erakundeei aipatu kontuen informazio aitorpena aurkezteko betebeharra ezartzeko. Horixe da, hain zuzen, foru dekretu honen gaia, betebehar hori eta kreditu erakundeek aurkeztu beharreko informazio aitorpenean jaso behar diren datu orokorrak arautzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak aurrekoaren gainean emandako txostenak ikusi dira.

Hori dela eta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren,

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**- Abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretuaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren testu bategina onesten du) 94. artikuluari 5. idatz-zatia aldatu eta 6. idatz-zatia eransten zaio. Honela geratuko dira idatzita:

***Decretos Forales del Consejo de Diputados***

**8.077**

**DECRETO FORAL 61/2002, del Consejo de Diputados de 10 de diciembre, que modifica el artículo 94 del Decreto Foral del Consejo de Diputados 111/2001, de 18 de diciembre, Texto Refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, señalando la obligación de las Entidades bancarias de presentar declaración informativa de las cuentas vivienda.**

El artículo 77.2 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, considera inversión en vivienda habitual, a efectos de aplicar la correspondiente deducción de la cuota íntegra, las cantidades que se depositen en Entidades de Crédito, en cuentas que cumplan los requisitos de formalización y disposición que se establezcan reglamentariamente y siempre que las cantidades que hayan generado el derecho a la deducción se destinen exclusivamente, antes del transcurso de cinco años, a partir de la fecha de apertura de la cuenta, a la adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual.

El Decreto Foral 111/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, regula el desarrollo reglamentario de las cuentas vivienda.

A esta regulación general de las cuentas vivienda se quiere incorporar una disposición que establezca la obligación de las Entidades de Crédito de presentar una declaración informativa de las referidas cuentas. Este es el objeto del presente Decreto Foral en el que se regula esta obligación, así como los datos generales que debe contener la declaración informativa que han de presentar las Entidades de Crédito.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo único.**- Se modifica el apartado 5, y se añade el apartado 6, al artículo 94 del Decreto Foral 111/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedarán redactados de la siguiente forma:

"5. Hurrengo urteko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturaletan kreditu erakundeek etxebizitza kontuen informazio aitorpen bat aurkeztuko dute. Hona aitorpen horretan jaso beharreko datuak:

a) Etxebizitza kontuaren titularren izen-abizenak eta IFZ.

b) Etxebizitza kontuaren zergapeko bakoitzak duen titulartasunaren ehunekoa.

c) Etxebizitza kontua noiz ireki zen.

d) Ekitaldi bakoitzaren hasierako eta amaierako saldoa.

e) Ekitaldi bakoitzean etxebizitza kontuan sartutako eta ateratako kopuruak.

6. Aurreko idatz-zatietan aipatutako informazio aitorpenak Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru diputatuak zehaztutako eran eta lekuan aurkeztuko dira. Halaber, foru diputatu horrek zehaztu ahal izango du ordenagailuz edo telematika bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko prozedurak eta baldintzak."

AZKEN XEDAPENA

Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2002ko zerga-aldian aplikatuko da, etxebizitza kontuak direla-eta.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko abenduaren 10a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

"5. Las Entidades de Crédito deberán presentar, en los treinta primeros días naturales del mes de enero del año inmediato siguiente, declaración informativa de las cuentas vivienda, en la que consten los siguientes datos:

a) Nombre, apellidos y NIF de los titulares de la cuenta vivienda.

b) Porcentaje de titularidad de cada contribuyente en la cuenta vivienda.

c) Fecha de apertura de la cuenta vivienda.

d) Saldo inicial y final de la cuenta vivienda en cada ejercicio.

e) Cantidades aportadas y reintegradas de la cuenta vivienda en cada ejercicio.

6. Las declaraciones informativas a que se refieren los apartados anteriores se efectuarán en la forma y lugar que determine el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, quien podrá determinar el procedimiento y las condiciones en que proceda su presentación en soporte directamente legible por ordenador o por medios telemáticos."

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y se aplicará respecto de las cuentas vivienda correspondientes al período impositivo 2002 del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**8.216**

**63/2002 FORU DEKRETUA, abenduaren 17ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrien aitorpena aurkezteko epea aldatzen da Foru Dekretu hauetan: urtarrilaren 26ko 6/99, maiatzaren 18ko 68/99, abenduaren 14ko 149/99 eta abenduaren 18ko 111/2001 eta 112/2001 Foru Dekretuetan.**

Atxikipen eta konturako ordainketen urteko laburpenak, zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten badira, hurrengo urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 10era bitartean aurkeztu behar dura, honako Foru Dekretuek zehazten dutenaren arabera: Petsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren testu bateratua onesten duen abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretua, kapital errentetan eta ondare irabazpenetan konturako atxikipenak eta diru-sarrerak egin behar dituztenek aplikatu beharreko araudia onesten duen urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua (horren IV Titulua "Atzerrian bizi direnengandik jasotako errenten ordainketa" indarrean darrai) eta Hainbat Zerga direla-eta, konturako atxikipen eta sarreren menpe dauden errentei buruzko 193 eta 194 ereduak onesten dituen abenduaren 14ko149/1999 Foru Dekretua.

Halaber, informazio aitorpenak aurkezteko epea, zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten badira, hurrengo urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 10era bitartean aurkeztu behar dura, honako Foru Dekretuek zehazten dutenaren arabera: Pertsona Fisikoen errentaren gaineko Zergaren araudiaren 94.2 artikulua, dohaintzei dagokiena, Sektore zehatzei buruz hainbat xedapenetan zehaztutako informatu beharra araudi bidez garatzen duen maiatzaren 18ko 68/1999 Foru Dekretuaren 7. artikulua eta Abenduaren 18ko 112/2001 Foru Dekretuaren, 346 eredua (eurotan) onesten duenaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan nekazariei edo abeltzainei emandako diru laguntzen urteko laburpenari buruzkoa) bost. bat atalak.

Urteko laburpen eta informazio aitorpen horietan jasotako informazioa oso garrantzitsua da zergadunen aitorpenetan jasotako datuak egiaztatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez. Baina, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak informazio hori zergadunek egindako aitorpenekin egiaztatzeko duen denbora oso mugatua da.

Horregatik guztiagatik, uste da beharrezkoa dela urteko laburpen horiek eta informazio aitorpenak aurkezteko epea aldatzea, zuze-

**8.216**

**DECRETO FORAL 63/2002, del Consejo de Diputados de 17 de diciembre, que modifica el plazo de presentación de declaraciones en soporte directamente legibles por ordenador establecido en los Decretos Forales, 6/99, de 26 de enero, 68/99, de 18 de mayo, 149/99, de 14 de diciembre, 111/2001 y 112/2001, de 18 de diciembre.**

Los Decretos Forales 111/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba la normativa a aplicar por las personas obligadas a practicar retenciones e ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales (cuyo Título IV "Pagos a cuenta de rentas obtenidas por residentes en el extranjero" se encuentra vigente), y 149/1999, de 14 de diciembre, por el que se aprueban los modelos 193 y 194 sobre rentas sometidas a retención e ingresos a cuenta por diversos Impuestos, fijan el plazo de presentación de los resúmenes anuales de retenciones e ingresos a cuenta en soporte directamente legible por ordenador en el período comprendido entre el 1 de enero y el 10 de febrero del año siguiente.

Asimismo, y por lo que se refiere a declaraciones informativas, el artículo 94.2 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas respecto a donaciones y el artículo 7 del Decreto Foral 68/1999, de 18 de mayo, que desarrolla reglamentariamente las obligaciones de información establecidas en distintas disposiciones en relación con sectores específicos, respecto a operaciones con activos financieros, y el apartado Quinto.Uno del Decreto Foral 112/2001, que aprueba el modelo 346 de resumen anual de subvenciones e indemnizaciones a agricultores o ganaderos en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, fijan el período comprendido entre el 1 de enero y el 10 de febrero como plazo para presentar las citadas declaraciones informativas en soporte directamente legible por ordenador.

La información recogida en los referidos resúmenes anuales y declaraciones informativas es de suma importancia de cara a la comprobación de los datos recogidos en las declaraciones efectuadas por los contribuyentes, en relación con los Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre la Renta de no Residentes siendo el tiempo de que dispone el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para el tratamiento de dicha información al objeto de contrastarla con las declaraciones efectuadas por los contribuyentes, muy limitado.

Es por ello que se considera necesario modificar el plazo de presentación de los referidos resúmenes anuales y declaraciones infor-